



ERREKA- TXINDORRA

Cettia cetti

TAMAINA

14 zm


ITXURA

Errekatxindorrek luma marroi gorriak ditu goialdean eta xuri hitsak behealdean, hegal eta buztan punta ilunagoak dituelarik. Bekain hertsia argia du eta begien ingurua iluna.

Txori ezin egona da: buztana eta hegalak astintzen ditu, eta maiz buztana altxaturik mugitzen da.

ESPEZIE
BABESTUA
HARRAPATZEA
EDO HILTZEA
DEBEKATUA DA

NOLA IDENTIFIKATU?



NOIZ?

> Urte osoan

NON?

> Sasi, hesi eta zuhaizti ugariko hezeguneetan

Bere kantua entzun >



! Benarriz gorritzarekin nahas daiteke. Ikusteko zaila da, baina kanta alai berezia du.

AURKEZPENA

BIZI ESPERANTZA

5 urte

ESPEZIEAREN EKOLOGIA

Intsektu ttipiak jaten ditu.

Errekatxindorrek maiz poligamia praktikatzen du. Emeak, ondoz ondoko bi umealdi egiten ditu. Adreilu koloreko 3-4 arraultza erruten, eta bi astez umatzea bermatzen du. Gazteak 15 egun inguru habian egon eta gero hegan egiten dute, oraino hamabost egunez helduen ardurapean izanez.

BEHARRAK, MEHATXUAK ETA ERRONKAK

Errekatxindorra aski arrunta da eta populazioa handitzen ari dela dirudi.

Badirudi klima aldaketak noizbehinkako migrazioa egiten duen espezie sedentario horrengan ez duela eraginik.

Errekatxindorra hezeguneetan aurkitzen da batez ere.